

BESTE BI HILARRI IDIAZABALEN

LORENTXO UGARTE

Sarrera

Nahiz eta hilarri gutxi ezagutu Gipuzkoan, tarteka tarteka egiten diren aurkikuntza berriei esker kopuru hau haundituz doa. Gure miaketa edo ibilaldien ondorioz, batez ere Goierri alde-
ra mugatuak, bi hilarri diskoidal berri idoro ditugu. Hauek Idiazabalgo udalbarrutian ezagutzen zirenen kopurua aberastera datoz. Orain arte Urbizu baserriko hilarria (F. Leizaola: 1981) besterik ez genuen ezagutzen, baina badira beste zenbait inguruko herrietan (Zegama, Zerain, Segura, etab.).

Axari Zulotako hilarria (Idiazabal)

Duela hilabete batzu, asteburuetan ohi dugun bezala, mendialdera ibilalditxo bat egiteko asmoz atera ginan. Gurutzeta auzotik pasatzera-
koan, Aristizabal baserriko Bixente Aranburu Arrizabalagarekin topo egin genuen, eta berarekin kontu kontari geundela, bere pinudi bateko mugarri bezala bi aldetatik gurutze bana zituen harri bat zegoela esan zigun; eta gainera, bertatik pasatzen direnean «Aitaren» egiteko ohitura dutela.

Gure interesa agertu genion harri horretaz, eta kontatu zigun nola bere aurrekoek zioten hil zen auzoko neska baten oroimenez jarria zegoela.

«Neska hura, 14 urte zituela, etxe-koek mendira bidali omen zuten, han zituzten larrebehiak etxera ekartzeko esanaz. Negua zen eta elurra zegoenez, gauerako etxera ekarri behar ziren.


«Atera omen zen neska etxetik, eta itzuli zenean esa omen zien ez zuela ganadua aurkitu.



Axari Zulotako hilarriaren aurrekaldea.

Etxekoak hasarraturik berriro joateko aginduz esan omen zioten: Otsoak jango al hau!

«Joan zen neska, eta ez zen itzultzen. Etxekoak kezkatu-
turik bere bila atera omen ziren eta, etxetik zortziehun bat metrotara odol arrastoak eta neskaren oinetakoak ikusi zituzten. Otsoak janda zuen».



Axari Zulotako hilarria.

Ipuin hau entzun ondoren kezka batzuk sortu zaizkigu. Axari Zulotako hilarriak beraren hain gertu dagoen Arkuutzetakoaren (Olaberria) ipuin berdina ote du? Gure ibilaldi hautako batetan, Olaberriko lanuaga baserriko biztanleetako batekin hitz egin genuen eta, berak zionez, Arkuutzetako hilarriaren historia beste bat da. Orduan, biak hain gertu egon da, ez ote dira bata bestearen historiak korapilatu? Berak entzunda zuenez, Arkuutzetako hilarria Altsasura botika bila zihoan gizon bat otsoak jan da hil zelako jarria izan zen.

Otsoak hildako neskaren jatorriaz bi iritzi daude; Arizkorreta Saletxe baserrikoentzat Aristizabalekoa zen, hauentzat berriz alderantziz. Ala ere biak ados daude historia hau dagokion hilarria ez dela Arkuutzetakoa, Axari Zulotakoa baizik.

Kokapena


Bertara iristeko bide erosoena hau dugu: Herriko eliza ondotik, Gurutzetara doan kaminoa hartu eta bertatik Aristizabal baserriraino iritsi. Hemen, Atxurbira doan mendi-pista jarraitu bi-



Axari Zulotako hilarriaren atzekaldea.



Axari Zulotako hilarria, mugarri ordekoa zenez geroz, buru gaineko marrak.



degurutze batera heldu arte, eta han, ezkerreko bidean laurehun bat metro egin. Lehen, hilarria pista hau pasatzen den tokian zegoen, baina bera irikitzerakoan alboratu eta, goazen eran, eskubiko murko gainean jarri zuten.

Geografi eta Katastral Institutuak 1/50.000 eskalaz egindako mapan, koordenada hauetan kokatzen da: $1^{\circ} 28' 05''$ Ekialde luzera eta $43^{\circ} 00' 25''$ Iparralde latitudea.

Itsas gaineko bere goratasuna 420 metrokoa da.

Bere aurrekaldea Ipar-Ekialdera begira dago.

Deskribapena

Axari Zulutako hilarri diskoidala hareharrizkoa da, inguru honetan hain ugaria den harri motakoa. Bere neurriak hauek dira:

- Altuera: 70 zm.
- Hankaren aurpegi bakoitzak 12 zm. ditu.
- Bere buruaren diametroa 33 zm.koa da, eta landuaren sakontasuna 0,5 zm.koa.

Disko itxurako burualdeko aurpegi batetan, gurutz greko bat du erliebean. Honen lau besomuturretan, obalo antzeko gaia du erremate bezala, eta oinaldearen azpikaldean marra bat agertzen da lur zoruan errepresentazio gisara.

Beste aurpegian, eta hemen ere erliebean, podium edo hiru harmailen gainean beste gurutz greko bat du. Burualdearen simetria ardatzarekin parekatzen baldin badegu, hau okertuta egingo da dagoela dirudi.

Azkenik, azpimarragarria da burualde diskoidala, bi aurpegietan, orla batez inguratutik ager-

tzen dela, bere barnean aipaturiko erliebez egin-dako errepresentazioak dituela.

Soro Zarreko hilarria (Idiazabal)

Oraintsu, arratsalde batez, Goatxe baserri-
ra joan ginan, eta bertako Juan Aranburu Mur-
giondo artzaiarekin izan genuen elkarrizketa ba-
ti esker, berak ardiak erabiltzen zituen belardi
batetan hilarri bat zegoela jakin genuen.

Behin bertan, ur-geldi potzu baten ondoan,
eta Idiazabaldik Segurara doan galtzadaren al-
boan, ikusi genuen. Eta Urrutikoetxe baserritik
ez hain urruti (200 m.).

Hilarri honek ere, besteak bezala eta Igna-
cio Legorburu Oiarbidek dionez, badu bere his-
toria: «Han, gizon batek potzuko ude eran eta
hil egin omen zen». Ez dakite bertakoren bat edo
galtzadan pasaizoan zihoanen bat ote zen. Bes-
talde, aipatzekoa da baserrikoek horko urik ez
dutela eraten.

Kokapena

Soro Zarreko hilarria ikustera joateko, oinez
bide luzean ibili beharrik ez dago. Lehen esan
dugun bezala, Urrutikoetxe baserrira automobi-
lez joan ez geroz galtzada bitarteko 200 metroak
bakarrik gelditzen bait dira.

Geografi eta Katastral Institutuko 1/50.000
eskalako mapan, koordinada hauetan kokatzen
da: $1^{\circ} 26' 45''$ Ekialde luzera eta $43^{\circ} 01' 05''$ Ipa-
rralde latitudea.

Bere aurrekaldea Hego-Mendebaldera begira
dago.

Itsas gaineko bere goratasuna 255 metrota-
koa da.

Deskribapena


Soro Zarreko hilarri hau ere hareharrizkoa
dugu, eta bere neurriak hauek dira:

- Altuera: 65 zentimetro gutxienez (ez da mugitzen eta ezin neurtu dena).
- Hankaren aurpegi bakoitzak 20 zm. ditu.
- Burualdearen diametroa 43 zm.koa da, eta lodiera 20 zm.koa.

Hilarri honek burualdeko aurpegietako bate-
tan bakarrik du irudia; bide aldera begira dagoe-
nean alegia. Hau, Maltako gurutz motako erlie-
bea dugu; eta beste batzuk bezala, orla batez in-
guratua dago. Irudiaren erliebe hau, harria 0,7
zm. sakonduaz egin ahal izan zuten.



Soro Zarreko hilarriaren aurrekaldea.



Soro Zarreko hilarria.

Ondoreak

Bi hilarriak hildakoen oroimenez jarritakoak dira, eta honetarako harri mota berdina erabili da —hareharria—. Bestalde, hauek, Gipuzkoan hain garrantzitsua den, Goierriko hilarrien nukleoa aberastera datoz.

Soro Zarreko hilarriak errepresentatuta duen gaia —Maltako gurutzeta— oso maiz agertu ohi da Euskalerriko beste hilarri askotan. Horrela F. Leizaolak (1981) argitaratzen zuen Idiazabalgo Urbizu baserrikoak ere berdintsua du, eta lan hartan bertan ia beste ehun aipatzen ditu.

Soro Zarrekoa, galtzada baten ondoan aurkitzen da, inguruko beste zenbaiten erara, kokatze-mota adierazgarri honen multzoa aberastuaz. Axari Zulutakoa berriz, mendi aldean agertzen da, edozein galtzadatik urruti, eta horregatik ez zaigu hain arrigarria egiten. Gogora dezagun gizaldi honen haseran, inguru hauetan, otsoak ibiltzen zirela; eta horrela, Gaztina Txulo baserriko Lorenzo eta Segundok ziotenez, otsoak pikatutako behorrak beraiek ezagutu zituzten.

Azkenik, azpimarragarria da Axari Zulutako hilarriak erliebean dituen irudietako bat nahiko arraroa dela, batez ere gurutzaren azpian agertzen diren harmailagatik. Honen antz piska bat badute iparraldeko batzuek, adibidez Sunberrautekoak, Labetze, Sarrikota, Lakarri, etab. (J. M. de Barandiarán: 1981).

Resumen

Damos cuenta en esta reseña del reciente hallazgo, de dos estelas discoidales en el término de Idiazabal, conocidas hasta ahora por las escasas personas moradoras de los caseríos cercanos, quienes nos informaron de su existencia.

La de Soro Zarre se halla al Oeste del casco urbano de la villa, a unos 200 metros del caserío Urrutikoetxe. Tiene labrada en el anverso una cruz de Malta, estando el reverso completamente liso.

La de Axari Zulota está al Sureste del casco urbano, a unos 800 metros del caserío Aristizabal. Tiene labradas ambas caras con una cruz griega a cada lado, estando la del reverso sobre una especie de triple escalinata.

Según la tradición oral, ambas testifican otros tantos hechos luctuosos; la primera de un hombre que falleció tras beber agua en un pozo del lugar; y la segunda de una niña devorada por el lobo cuando en un atardecer de invierno la mandaron sus padres al monte a recoger las vacas para llevarlas al caserío.

Bibliografía

- AGUIRRE, A. — «Estelas discoidales de Guipúzcoa». Anuario de Eusko Folklore 1982-83, pp. 153-171.
- BARANDIAREN, J. M. de. — 1977: «Lekuonaren idazti bilduma», t. I, Vitoria, pp. 61-69.
- BARANDIARAN, J. M. de. — 1981: «Estelas discoideas del País Vasco (III)». Obras completas, t. XX.
- LABORDE, M. — 1964: «Exposición de catorce nuevas estelas discoidales situadas en la provincia de Guipúzcoa», Homenaje a Don J. M. de Barandiarán. Diputación de Vizcaya. Bilbao I. pp. 144-155.
- LEIZAOLA, F. — «Una estela discoidea en Idiazabal (Guipúzcoa)». Anuario de Eusko Folklore 1981, pp. 93-98.